



Komunikazioa euskaraz

ADMINISTRAZIOAN ARLO JURIDIKOAN ETA KRIMONOLOGIAN

Norberaren kontzientziaren arabera jarduteko eskubidea

1

Laura ALVAREZ AGOUES

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Norberaren kontzientziaren aurka ez jarduteko eskubidea: 2.1. Kontzientzia-askatasunaren zuzenbidea, kontzeptua.-2.2. Gatazka kontzientzia-askatasuna eta arau pribatu baten artean.-2.3. Kontzientzia-askatasuna eta abortua.-2.4. Gatazka kontzientzia-askatasuna eta norberaren bizitzaren artean.-**III. Ondorioak.-IV. Bibliografia.**

I. Sarrera

Indarrean dagoen Espainiako Konstituzioan, kontzientzia-askatasuna ez da esplizituki, hitzez hitz aitortzen. Ez da hala gertatzen nazioarteko araudian; bertan pentsamendu-, kontzientzia-, eta erlijio askatasuna aitortzen da.(Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala 18. artikulua, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua 18.art, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena 9. artikulua, Oinarrizko Eskubideen Europako gutuna 10. artikulua). Espainiako Konstituzioan, doktrinak eta jurisprudentziak 16. artikuluan azaldu ohi dute askatasun horren oinarri juridikoa. Bertan ideologia-askatasuna, erlijio-askatasuna eta kultu-askatasuna aitortzen dira eta legeak babestutako ordena publikoa da muga.

Lan honen helburua gaur egun indarrean dagoen estatu-eredua (zuzenbidezkoa, sozial eta demokratikoa) aztertuta, gizabanakoek (hainbat lan-profesiotan aritzen diren pertsonetan oinarrituz) bere kontzientziaren baitan zein neurritan jardun dezaketen aztertzea izango da, kontzientziako arau hauek, gizakiaren izaera, nortasuna eratzen duten konbikzio pertsonal sakonetan oinarritzen dira eta horren ondorioz, kontzientzia-arau horiek pertsonaren identitate eta singularitasunaren oinarri dira. Arau horien artean pertsonaren jarduketa baldintzatzen duten inperatibo erlijiosoak, etiko eta moralak, ideologikoak, filosofikoak eta antzekoak daude eta hauek beti, pertsonaren identitatearen euskarri dira. Ondorioz, arazoa pertsona indibidualaren eremuan azalduko da eta diskordantzia bat emango da; zerbaitetara behartzen duen arau estatal bat egongo da batetik, eta bestetik bere burua derrigortzen duen kontzientziako beste arau bat. Honela, kontzientzia-askatasuna edo kontzientzia-eragozpena alegatzeak ez du ekarriko, kasu guztietan, betebeharretik salbu geratzea subjektua.

II. Norberaren kontzientziaren aurka ez jarduteko eskubidea

2.1. Kontzientzia-askatasunaren zuzenbidea, kontzeptua

Kontzientzia-askatasuna eskubide subjektibo izanda, gizabanakoari nahiz komunitateei aitortua, haren edukia hiru mailatan sistematiza daiteke:

1. maila: Kontzientzia askatasunak gizabanakoari uste sendo eta iritzi propioak izateko ahalmena aitortzen dio: uste sendo bat edo bestea edukitzeko eskubidearekin





batera, norberaren kontzientzia askatasunez eratzeko eskubidea biltzen da lehen maila honetan. Maila honetan, kontzientzia askatasuna erabat lotua dago beste eskubide batzuekin: hezkuntza-eskubidearekin eta informazioa jasotzeko eskubidearekin, besteak beste.

2. maila: Kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio gizabanakoari bere kontzientzia adierazteko eta besteei jakitera emateko. Maila honetan, kontzientzia-askatasuna hainbat oinarrizko eskubidetan gauzatzen da: irakasteko askatasuna (norberaren kontzientzia hezkuntzaren eremuan adierazi edo jakitera ematen bada) eta adierazteko eta informatzeko askatasuna.

3. maila: Kontzientzia-askatasunak aukera ematen dio gizabanakoari bere kontzientziaren arabera jarduteko eta, era berean, kontzientzia horren kontra jardutera behartua ez izateko. Maila honetan, adierazten dira kontzientzia-eragozpenaren hainbat adibide. Eremu honetan jarri dezakegu *politika legegile* deitu ohi zaionaren datorren gogoeta: Estatuko ordenamenduak zein neurritaraino errespetatu behar ditu gizabanakoaren uste sendo eta konbikzioak?

Galdera garrantzitsu honi erantzuteko, kontuan hartu behar da botere publikoak, indarrean dagoen Espainiako Konstituzio baitan, behartuta daudela neurriak hartzera gizabanakoaren eskubide eta askatasunak eraginkorrak izan daitezten-EK-ko 9.2. artikulua. Zein motatako neurriak hartu behar dituzte botere publikoek gizabanakoen kontzientzia-askatasunak eraginkorrak izan daitezten aipaturiko maila guztietan? Eremu hori zehazteko, kontuan izan behar da oinarrizko eskubide horri EK-n ezartzen zaizkion mugak, 16n artikuluan hain zuzen ere: *legeak babesten duen ordena publikoaren errespetua*. Muga horrek zehaztuko du kontzientzia-askatasunaren legezko egikaritze-eremua.

2.2 Gatazka kontzientzia-askatasuna eta arau pribatu baten artean

Gatazka mota honetan, gertatuko den kontzientziaren urraperenak ez du estatuaren araudian jasotako betebeharrak orokor batek sorraraziko, baizik eta arau pribatu batek. Ondorengo izango da gatazka: kontzientzia-araua batetik eta arau inperatibo pribatu bat bestetik, normalean lan-kontratu batean jasotakoa. Garrantzitsua da aipatzea, lan kontratuak alderdiak lotuko dituela eta sinatutako kontratuak alderdientzako lege balioa izango duela. Ondorioz, ponderazio bat egiten bada, kasu hauetan ezingo da aplikatu lehentasun printzipio automatikoa. Hau da, gatazka honetan ez da egongo lehentasuna duen *interes orokorrik*. Kasu bakoitzean, auzitegiek ikusi beharko dute lehentasuna nork duen, dagokion eskubide-ponderazioa egin ondoren. Eremu honetan, Konstituzio Auzitegiak emandako hainbat epai eta gatazka azpimarratuko ditugu.

2.3 Kontzientzia-askatasuna eta abortua

Abortuaren kasuan, Konstituzio Auzitegiaren 15/1985 apirilak 11ko sententzia da esanguratsuenak. Epai hau izan zen konstituzio-kontrako errekurso baten erantzuna, abortua hiru kasutan despenalizatzen zuen lege organikoari egindako errekursoa, hain zuzen.

Lege honen konstituzio-kontrakotasuna eskatu zen besterik beste, ez zelako aurreikusten medikuen eskubidea abortuak ez egiteko kontzientzia arazoak zirela eta.

Honetan, KAK dio, sanitarioak duen kontzientzia-askatasunetik, EK-ko 16. artikuluan ondorioztatzen dela abortuak ez egiteko kontzientzia arazoak alegatzea. Ildo berean dio kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubide bat dela eta zuzenean aplikatu daitekeela, nahiz eta legeak ez jaso. Beraz, sanitarioak alegatu ditzake kontzientziako arazoak abortuak ez egiteko. Gatazka planteatu daiteke modu honetan: batetik sanitarioaren kontzientzia eta



bestetik, honen lan kontratua edo funtzionario egoera, bertan araudian jasotzen diren eta sanitarioari erreferentzia egiten dioten hainbat jarduketa jasotzen dira, horien artean legezko abortuak.

Modu honetako arazoak gainditzeko, Errege Dekretu bat eman zen 2409/1986-koa. Bertan adierazten denez, Autonomia Erkidego bakoitzean, osasun arloko agintariek bermatu behar zuten abortu legalen egikaritzea. Aipatzeko da ere, zenbait Autonomia Erkidegotan ez dagoela legezko abortuak egiteko aukera modu berdinean bermatuta. Estatu espainiarrean, emakumeek duten aukera interbentzioa hauek jasotzeko desberdina da Erkidego batetik bestera. Arrazoi erlijioso eta ideologikoak direla eta, ahots batzuk eusten dute, Nafarroak esaterako, urteetan ez dituela bideratu etenaldiak beren lurraldean, kanpoko zentro edo kliniketara deribatuz eta honela, emakumearen eskubideak bigarren mailan geratu dira.

2010. urtean, lege organiko bitartez arautu zen abortuaren gaia: 2/2010 Lege organikoa *sexu-eta ugalketa-osasunerako eskubidea eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzkoa*. Bertako 19. artikuluan jasotzen da eremu sanitarioko profesionalak, haurdunaldiaren etetean parte-hartze zuzena dutenek, eskubidea dutela kontzientzia-arrazoiak alegatzeko, modu honetako jarduerak ez egiteko; indibidualki egin beharko da idatziz eta aurretiaz. Legeak dio, eremu sanitarioko profesionalak, eskubidea duten emakumei tratamendu hori eskaini beharko diela zuzenean sare publikoan edo akreditazioa duten zentro pribatuetan, haren kostua bereganatuz. Oro har, orain arte eman diren kasuetan nabari da ez zaiela tratu juridiko berbera eman kontzientzia-askatasunaren inguruan sortu diren arazoei. Arazo juridikoez kanpo, funtsean, nabari da zenbat sentsibilitate daudela kontzientzia-arazoen atzean dagoenaren arabera: gutxiengo erlijioso bat edo Eliza katolikoa.

2.4 Gatazka kontzientzia-askatasuna eta norberaren bizitzaren artean

Gatazka hau gatazka intrapertsonal moduan kalifikatu izan da; izan ere, gatazkan dauden bi ondasun juridikoak, hasteko pertsona berberarenak baitira: pertsona baten bizitza eta pertsona beraren kontzientzia-askatasuna. Egitatezko suposamendua ondorengoa da: Jehovahako kristau testigua eta borondatearen kontrako odol-transfusioarena. Jehovahako kristau testiguen badute kontzientziako arau erlijioso bat odol-transfusioak jasotzea galarazten diena, nahiz eta beren bizitza galtzeko arriskua egon. Arazoa ospitaleetan planteatzen da. Bertan medikuek, beren jarduera zuzenaren araudia edo *lex artis* delakoa jarraituz, bizia salbatzeko jardun ohi dute. Baina badakite ere, edozein tratamendu aplikatu ahal izateko gaixoaren baimena behar dela, Osasunari buruzko Lege Orokorraren 10. artikulua, bestela bere jarduera ez da zilegia izango. Kasu hauetan, medikuaren egoera kritikoa da:

-Baimenik gabe transfusiorik egiten badu, Jehovahako kristau testigu berak edo bere familiak leporatu diezaioke koakzioaren delitua, gaixoaren baimenik gabe jardun duelako.

-Transfusioa egingo ez balitz eta Jehovahako kristau testigua hilko balitz, *lex artis* delako ez dutelako bete, erantzukizuna izan dezakete.

Aipaturiko erantzukizun penalak ekiditeko, medikuak, denbora dagoenean, baimena eskatuko dio epaileari transfusioa egiteko. Azken finean, bi balore-kode daude jokoan: epaile eta medikuarena eta Jehovaharen kristau testiguarena.

Jurisprudentziari dagokionez, 369/1984 Auto bidez, KAk adierazi zuen epailearen baimenak ez duela urratzen gaixoaren kontzientzia-askatasuna. Izan ere, ulertu zuen erlijio-askatasunaren muga dela EALOn jasotzen den 'osasuna' zela, beraz kontsideratu zuen, *osasunaren* kontrako erabakiak erlijio-askatasunaren eremu legitimoetik kanpo zeudela; ondorioz ez zuen babes-helegitea onartu. Dena den, badago beste epai bat, KA



154/2002koa adingabeko baten heriotzaren inguruan emandakoa. Hortik ondoriozta daiteke, zeharka, gaixoa kasu horretan adin nagusia izango balitz, bere ezezkoa errespetatu egin beharko luketela medikuek.

Honela, gai honen inguruan, aipatu dugun legeria kontutan hartuta, gehienak 2000 urtea eta gero, mediku, jurista eta jurisprudentziaren artean jarrera da, *lex artis* delako hori ez kontsideratzea nagusigo osoa duela, eta gaixoaren borondatea, bere eskubide pertsonal guztiak, duintasuna, kontzientzia-askatasuna, intimitatea e.a horiek batera interpretatuta, aldaketa bat sumatu da bizitzaren kontsiderazioaren inguruan. Adin nagusien artean, borondatea errespetatzea da joera. Arazo gehiago planteatzen dira gaitasunik gabeko adingabekoen kasuan. Honen inguruan, ez dago batere adostasunik. Orain dela gutxi, Estatuko Fiskaltza Nagusiak emandako zirkular bat aipatu beharrekoa da 1/2012koa; bertan azaltzen diren ondorioak aipagarriak dira. Baita ere, Palentziako Ospitalean dagoen protokoloa, 2004, Jehovako kristau testiguen transfusioen ingurukoa.

III. Ondorioak

Azaldu dugun moduan, kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubide bat da eta eskubide honen inguruan gizabanakoaren kontzientziaren muina (*gure gogor* delakoa) urratzen dituzten hainbat desadostasun ager daitezke. Honela, berebiziko garrantzia dute pertsona indibidualaren eremuan (azter dugun bezala, medikuen edota sanitarioen kasuan) planteatzen diren gatazkek. Kontzientzia-arazo hauei aurre egiteko, araudiak ez du irtenbiderik ematen eta ondorioz epaileen esku geratuko da gatazka honi erantzuna ematea.

Bibliografia

FERNÁNDEZ LLAMAZARES, Dionisio (2014): *Derecho de la libertad de conciencia*, Madril: Civitas.

Espainiako, Konstituzioa:

<http://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala:

<http://dudb.es/giza-eskubideen-aldarrikapen-unibertsala>

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko paktua:

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47->

[dbeduki/eu/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/pacto_intern_dcbo_civiles_y_politicos_eu.pdf](http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-dbeduki/eu/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/pacto_intern_dcbo_civiles_y_politicos_eu.pdf)

Oinarrizko eskubideen Europako gutuna:

http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz/eu_3818/adjuntos/Sexu-berdintasunari%20buruzko%20arauak/12.EUROPAR_BATASUNEKO_OINARRIZKO_ESKUBIDEEN_GUTUNA.pdf

III. Ikasleen ekarpenak



5

Sexu eta ugalketa-osasunerako eskubidea eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzkoa 2/2010

Lege Organikoa:

<http://www.boe.es/boe/dias/2010/03/04/pdfs/BOE-A-2010-3514.pdf>

Botere Judizialaren haurdunaldiaren borondatezko etenaren eta sexu eta ugalketa osasunari buruzko 2409/1986 Errege-dekretua:

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1986-30898

Konstituzio Auzitegiaren 15/1985 epaia.

Konstituzio Auzitegiaren 154/2000 epaia.